

ARRIETA'tar NIKOLA, EUSKERAZALEA



Gure alboan lan eta lan ibilli diran gizonak, gu baiño zarragoak izanik antxiñatik eta isillean, al izan daben neurrian euskerearen alde lan egin daben ekin-tzaille apalak, ez dira aizatuta geratu-bearrekoak.

Olako bat dogu gure inguruan lan isilla egiten dauan Nikola: Gaur batzarrera, urrengoan "Euskerazaleak Alkar-teak" k argitaratzen dauan egutegirako lanak, urrengoan alako edo olako itzulpena... eta ori larogei ta amar (90) urte lepo-gaiñean dirala...! Benetan eredugarriak olako gizonak!

Zer'ek: Noz eta non jalo ziñan Nikola?

Nikola'k: Ni Mungia'n jaio nintzan, Larrabizkar ondoan dan Larreta Baserrian, 1897'ko zezeillaren 2'an. Mungia'koa nozu ba eta maite dot neure erria.

Zer: Lenengo ikasketak Mungia'n egin zenduzan eta antxe bizi ziñan gudaritzara joan arte. Esan egiguzu zerbait zure gudaritzari buruz.

Nik: Gudaritza Donostian egin neban, artillerian, iru urte igaro nebazan an.

Zer: Gudaritza amaitu zendunean, lanera sartzea izango zan zure arazoa.

Nik: Gudaritzatik etxeratu nintzanean, Aldundira langille lez sartzeko norgeiako bat zala barria eldu jatan. Orduan "foralak" esaten jakenen idazgoan lan egiteko zan eta norgeiako orretara sartu nintzan. Lan-tokia lortu be bai. Idazgo aretan egin neban lan 7 urtetan. 1929'an beste norgeiako baten Bizkai'ko Agiritegi ta Liburutegi-ko langilleen Ardudun izateko lana ezarri eusten eta 38 urte egin nebazan lan orretan eta gero saridun

biurtu naz eta orretan nago orain. 54 urte ta erdi igaro dodaz Bizkai'ko Aldundian langille eta 21 urte dira saridun biurtu nintzala, 1967'an.

Zer: Olako lanak lotura aundia izango ziran zutatz, lana beti da, izan be, lotura, eta zeuri atsegin jatzuzan zeregin asko bete barik izango dira.

Nik: Ni atsegiñez ibilli naz lanean, baiña, bai, saridun biurtu ezker askatasun geiago dago, etxeokai laguntzeko, egin nai diran lanak egiteko...

Zer: Zu emen "Euskerazaleak Alkartea" ren inguruan aspaldion zabiltz. Noztik, zergaitik, nortzukaz...?

Nik: Montiano Euskerazalea etorri jatan Aldundiko Liburutegira eta an Euskeraz berba egiten genduala ikusirik, egun baten, "La Gran Enciclopedia Vasca" ko Jose M.^a Martin de Retana gugaz egoala, Euskerazaleak alkartera etorteko deia egin eustan. 1967n. urtea zan eta ni urte orretan epaillaren lenengoan biurtu nintzan saridun. Pozik etorri nintzan Alkartea onetara, ez gizon aundi lez, lan batzuk egiteko baiño. Abeletxe'gaz batera idazgoko lanak eta olakoak egiten genduzan. Jesus Oleaga zan Lendakaria, Jose Maria Makua Diru-Zaiña. Orduan be Egurrola izaten genduan laguntzaille, txartelak, adrema-lana ta olakoak egiteko. Orrelan amar urtetan.

Zer: Baiña orain ez dozu egiten olako lanik.

Nik: Ez, orain Batzordean maiko naz, baiña ni ez nago-olako lekuetarako gertatuta. Nik beti egin dodaz aunditasun-bako lanak.

Zer: Ederto, Nikola! Baiña ez dogu amaitu bearko zure emaztea gogoratu barik, ez?

Nik: Ez orixe. Nire emaztea Epifania Goya da, gipuzkoarra, Mutiloa'koa. Orain 87 zazpi urte daukaz eta nitzat bera izan da laguntzaillerik onena. Ezin amaitu ba, alkar-izketa au berari eta nire etxeko zintzoai neure maitasuna ta biotz ona agertu barik. Ba-daukat Jaungoikoari zergaitik eskerrak emon, baketsu ta zoriontsu bizi izan garalako eta estualdietan naiz gaiso-aldietan beti aurrera egiteko lagundu dauskulako.

Zer: Zeuri be eskerrak, Nikola, Alkartea onetan egin dozun eta egiten dozun lan ederragaitik. Urte askotan zoriontsu ta osasuntsu bizi zaitezela.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK